


Liburutegiak

2021



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

pertsonak helburu

“Business as usual” adierazi omen zuen Winston Churchill agintari britainiarrak Lehen Mundu Gerraren hasieran, gatazka bortitz hark ez zuela eguneroko bizitzan eraginik zertan izan azaltzeko. Baina denok dakigu egoerak ez zuela bere horretan jarraitu. Izan ere, gerra amaítu baino lehen borrokan parte hartu zuten herrialde guztiek errotik aldatu behar izan zituzten beren ekonomia eta funtzionatzeko era.

Errusian bi iraultza (otsailekoa eta urrikoa) gertatu ziren; eta gerraren azken egunetan, inperio zentralak desegin ziren; horrez gain, demokrazia eta ongizatea zabaltzeko neurri ugari hartu ziren: zenbait herrialdetan, zortzi orduko lan-ordutegia edota emakumeen boto-eskubidea, besteak beste.

Ez dugu, inondik inora garai hartako egoera bizi, gerraren hotsak berriro ere gugandik hurbil entzuten baditugu ere, baina pandemiaren sasoiko aldaketez gain, iazko udazkenetik datozen inflazio eta energia-salneurrien hazkundeak, gehi Ukrainaren inbasioak utziko dituen arrastoek garbi adierazten digute zenbait gauza ez direla lehengotara itzuliko edo, hobeto esanda, eraldaketa sakonak izango dituztela. Hortaz, inozoa litzateke pentsatzea gure “business-a”, liburutegiak, betiko moduan mantenduko direnik XXI. mendearen hirugarren hamarkadaren hasiera honetan.

Euskadiko Liburutegi Sistema ohardun da horretaz, eta etengabe ari da aldatzen eta berritzen. Bide horretan uneoro ari da katalogoa hazten, liburutegi berriak ari dira sarean sartzen (Arantzazuko Santutegikoa iaz) eta gure webguneak hobetzen ari gara, nahiz eta nahiko genukeena baina polikiago gertatu. Bestalde, 2021eko azaroan aurkeztu genuen Euskadiko Liburutegi Digitala (<https://www.euskariana.euskadi.eus>). Euskarianarekin gure ondare digitala herritarren eskura jartzen ari gara era erraz eta eskuragarrian. Hori guztia ez da nahikoa, ordea.

Euskal Herriak, herrialde garatuek dituzten erronkez gain, bereak diren arazo propioak ditu: gure demografia egonkortu egin da eta zahartu. Gure gizartean lanerako jendea beharko dugu, eguneroko premiei aurre egingo badiegu, eta horretarako orain arte etxetik kanpo lan egiten ez


zutenak eta etorkinak beharko dira. Hori ez da berria, baina eragile garrantzitsuak izango dira gizartearen bilakaeran, eta ezinbestekoa izango da kohesio-tresnak indartzea.

Beste alde batetik, Globalizazioak agerian utzi du bikain egindako lanak baino ez duela aurrera egingo nazioarte gero eta lehiakorragoan. Beraz, pertsonak eta beren ongizatea helburu ditugula, formakuntza eta kultura izango dira gure erronkak aurrera begira. Hori da, hain zuzen, liburutegiek aurrean duten jokalekua. Euskadiko liburutegiak ahalegin handia egiten ari dira joko-zelai honetan urte askotako lanari esker lortutako erreferentzialtasunari eutsi eta esparru berriak bilatzeko. Ezin dira galdu topagune eta babesgune izaera, baina aldaketa sozialek, ekonomikoek eta teknologikoek dakartzaten berrikuntzak aintzat hartuta aritu behar dugu.

Liburutegien oinarria irakurleak dira eta irakurzaletasunarena liburuak. Oso pozgarria, eta aldi berean deigarria, izan da paperezko liburuek erakutsi duten indarra pandemia-garaian. Hasierako beldurrak arinduta, euskal editoreek ere aitortu dute egoera ona bizi dutela, nahiz eta beroaldia laster hoztuko den beldur ere badiren. Saint Jordiren eguneko salmentak ere inoizko onenetarikoak izan dira. Liburu gehiago saldu dira eta gehiago irakurtzen da, baina aldaketa garrantzitsuak gertatu dira, erosteko eran esate baterako, hurbileko liburu-denden kaltetan.

Euskadiko Irakurketa Publikoaren Sareko datuei dagokienez, gazi-goza da ikuspegia. Liburua indartsu dago gurean. Batetik, Eusko Jaurilaritza eta liburutegiak egiten ari diren ahalegin ekonomikoari esker urtez urte handitzen ari da eskura ditugun liburuen kopurua. Bestetik, liburutegi gehiago sartu dira sarean, eta horren guztiaren ondorioz 1.440.296 titulu ditugu apaletan.





Liburu horien guztien balizko irakurleak bazkideak dira; bazkide-kopuruak ere gora egin du, baina garbi dakigu zenbait bazkidetza-txartel ez direla sekula erabili. Kontuak egiteko, baztertu egin dira bazkide ez-erabiltzaile horiek eta 920.149 bazkide zenbatu dira, ia-ia Erkidegoko biztanleriaren erdia. Horietatik 188.321ek maileguren bat hartu du 2021. urtean.

Azken hiru urteak kontuan hartuta, kezkagarria da eskura egindako maileguen kopurua. 2019an 2.744.226 mailegu egin ziren; 2020an, konfinamenduak eta liburutegiak itxita egoteak asko jaitsarazi zuten aurreko urteko kopurua; ia azken urtean, 2021ean, zorionez, gorakada ederra ikusi genuen, 2.272.338 mailegu egin baitziren, baina 2019rekin alderatuta, nabarmena da beherakada. Egia da, halaber, asko ugaritu direla liburutegien arteko maileguak, bikoiztu baino gehiago 2019tik 2021era. Arlo digitalean, pandemia-garaian, ia hiru aldiz gehiago erabili zen eLiburutegia, eta 2021ean ere, indartsu mantendu da, 2019ko kopurua bikoiztu egin baitu. Hots, 135.472 lan hartu zituzten erabiltzaileek 2021ean zerbitzu honi esker: mailegatutakoan ia % 6 izan ziren, baina katalogoko eskaintzaren % 1,8 bakarrik.

Denbora-epe labur eta oso bereziko datuak dira aurrekoak eta ez dugu ziztu biziko ondoriorik atera behar, baina ostrukarena egitea litzateke datuak ez ikusiarena egitea. Egia da, era berean, datuen atzean pertsonak, motibazioak eta ahaleginak daudela, ugariak eta desberdinak. Liburutegiek, arestian esan dugu, zeregin garrantzitsua dute herritarren kultura eta ongizate gosea asetzeko eta harrera-gune abegikorra eta eremu atsegina izan behar dira erabiltzaileentzat, baina ezin da ahaztu etorkizuna eta horri begira jardun behar dugu. Kultura-eskaintza bermatu behar dute, eta horretan Eusko Jaurlaritzaren babesa izango dute: sare informatikoa eta Liburutegi Zerbitzuaren aholkularitza indartzeaz gain, laguntza-deialdiak egiten jarraituko du. 2022an, gainera, Europako Funtsen zati bat liburuaren erosketara bideratuko delako, eta horri esker handitu egingo da liburuak erosteko jartzen dugun diru-kopurua.


Maileguen eskaera da zerbitzuaren erabilgarritasunaren adierazle garrantzitsua, eta horixe da, hain zuzen ere, gure ustez, indartu beharreko elementua; bestela esanda, oinarri-oinarrian dagoena suspertu behar da, irakurzaletasuna, alegia. Ohiko laguntzez gain, Eusko

Jaurlaritzak ahalegin berezia egin nahi du datozen urteetan irakurzaletasunaren alde. Laster eskuratuko dugu egitasmoaren lehen zirriborroa eta eragile guztiekin (liburuzainekin, irakasleekin, argitaletxeekin, liburu-dendekin eta komunikabideekin) partekatuko dugu gizarte osora indar handiagoarekin heldu ahal izateko. Ea, guztion artean asmatzen dugun.

Mikel Aizpuru Murua


Kultura Ondarearen zuzendaria

eLiburategia estatistikak





eLiburategiko maileguak 2021ean

Nabarmentzekoa da maileguen banaketak urteko hilabete guztietan izan duen erregularitasuna, eta horrek adierazten du eLiburategia ohiko irakurleek erabiltzen duten zerbitzua dela.





Maileguak - hilabetekak: bilakaera 2016-2021

Pandemiak eLiburutegiaren zerbitzuaren erabilera hazkunde esponentziala ekarri zuen arren, etapa hori gaingitu ondoren, maileguen kopuruaren hazkundera konfinamenduaren aurreko egoerarekin alderatuta nabarmen hazi dela egiaztatu dugu.




urteko maileguak: bilakaera 2016-2021

Egiazta daiteke eLiburutegiaren bidezko mailegua, konfinamendu-fasea gainditu ondoren, ia bikoiztu egin dela, aurreko etapako ekitaldirik onenaren emaitzekin alderatuta.




maileguak udalerriak

Biztanleria-bolumenagatik normala denez,
EAEko hiru hiriburuak dira udalerri bakoitzeko
mailegu-kopuruaren rankingeko liderrak.




maileguak 1.000 biztanleko




Ranking honetan, udalerri barruan ohiko
irakurleen ehuneko handia duten herri txikiak
nabarmentzen dira.



Maileguak 1.000 biztanleko : 5.000 biztanletik gorako udalerrietan




Maileguak 1.000 biztanleko: 10.000 biztanletik gorako udalerrietan




Erabiltzaile berriak: bilakaera 2016-2021

Nahiz eta erabiltzaile berrien kopuruak gora egin duen 2020an, pandemiak eraginda gehienbat, ekitaldi honek aurreko urteetako baino apur bat txikiagoa den hazkunde-bideari eusten dio.




eLiburategiaren erabiltzaileak

2021ean eLiburategiak 65.000 erabiltzaileko muga gainditu du, martxan jarri zenetik etengabe hazteko bideari eutsiz




Liburuak eLiburutegian

eLiburutegiak leial jarraitzen du bere tituluen eskaintza handitzeko filosofiarekin, bazkideen beharrak asetzeko helburuarekin.



mailegatuenak



Aquitania

Eva García Sáenz de Urturi

1025



Rey blanco

Juan Gómez Jurado

665



El bosque de los cuatro vientos
María Oruña

619



Sira

María Dueñas

541



El infinito en un junco

Irene Vallejo

527



Mujeres que no perdonan

Camila Läckberg

517



Miñan

Amets Arzallus
Ibrahima Balde

496



Un océano para llegar a ti

Sandra Barneda


481



El mentiroso

Mikel Santiago

429



La hora de las gaviotas

Ibon Martín

395



La cara norte del corazón

Dolores Redondo

390



Alas de plata

Camila Läckberg

379



mailegatuenak euskaraz



Miñan

Amets Arzallus
Ibrahima Balde


496



Ezekiel

Jasone Osoro


329



Aitaren Etxea

Karmele Jaio

193



19 Kamera

Jon Arretxe

156



Dendaostekoak

Uxue Alberdi



116



Larunbatean
Bukowskin

John Andueza

108



33 Ezkil

Miren
Gorrotxategi

107



Beti
iparralderantz

Jon Arretxe

102



Narrazio gustiak
(1979-1990)

Joseba
Sarrionandia

98



Ezekiel nora ezean

Jasone Osoro

89



Urtebete
itsasargian

Miren Agur
Meabe

83



HAN GOITIK
ITSASOA
IKUSTEN DA

Miren
Gorrotxategi

73



liburutegiak



zaindu dezagun lorategia

Euskal Herriko liburutegi publikoetan berrikuntzak egin eta errealitate desafiatsuak bizitzarako leku hobeetan eraldatuko dituzten pertsonak behar ditugu gaur egun.

Hainbat ahalegin egin dira mundu zabal eta anitza parke bakar batean biltzeko. 1893tik aurrera Albert Kahn-ek bultzatutako Les Jardins du Monde parkea izango da, beharbada, sintetizatze ahalegin horren adibiderik bukatuenetakoa bat. Mezenas ameslari eta adimentsu horren proiektu ugariak jakintza pertsona guztien eskura jarri nahi zuten, gizartearen hezkuntza hobetu. Lorezain proiektuaz gain, batez ere ezaguna da munduko argazki- eta zinema-atlas erraldoi bat sustatu zuelako: Les Archives de la Planète. Eta hori gutxi balitz, gizarte eta politika zientzietako hainbat argitalpen ere finantzatu zituen, irakasle eta aditu gazteei bekak eman zizkien, eta medikuntza prebentiboa bultzatu zuen. Frantziako filantropoak “giza aurrerapenaren alde lan egin zuen, eta, bere uste bakezale eta humanitarismo kosmopolita sendoek bultzatuta, kulturen arteko elkarriketa eta zibilizazioen arteko lankidetzak bultzatu zituen, munduko bakea lortze aldera”.

Santiago Beruete (Iruñea, 1961) filosofo, irakasle eta idazlearen lanean aurki daitezke biografia, gogoeta eta lorategi erreal eta idealetan egindako ibilaldiak. Institutuko filosofia-irakasle honen saiakerak planetaren heziketaren eta zaintzaren, ekologiaren eta ezagutzaren arteko harreman boteretsu eta iraunkorra azpimarratzen dute.

Gure hiri eta herrietan, goizeko ibilaldi batean, inspirazio ilustratuko lorategi eta eskolen adibide ezberdinak aurki ditzakegu, bere garaian heziketa publikoaren hedapena eta jakintza zientifikoaren hobekuntza bultzatu nahi izan zutenak. Publikoari irekitako liburutegiek, beste ekimen batzuen artean, nolabaiteko garrantzia izan dute ildo horretan XIX. mendearen hasieratik. Eta maila guztietako ikastetxeetan kokatu-

tako liburuen bildumak nahiko ohikoak izan ziren gure artean XX. mendearen lehen laurdenean. Hala ere, UNESCOk liburutegi publikoari ematen dion bultzadara arte, gaur egun ezagutzen dugun bezala, Bigarren Mundu Gerraren ondoren, liburutegiak pixkanaka gure inguruan hedatzen hasten dira.

Orduan, Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea (UNESCO, 1945) sortuz, Nazio Batuek hezkuntza bultzatu eta zaintzeko beharrian saihestezina azpimarratu zuten, eta hori XXI. mendearen lehen hamarkada hauetan klima-aldaketaren, desberdintasun ekonomikoaren eta berrikuntzaren, kontsumo iraunkorraren, bakearen eta justiziaren aldeko borrokan sustatzen ari diren ekimen indartsuen parekoa da.

Milurteko Garapen Helburuen bidez (2000-2015) lortutako aurrerapenaren ondoren, Nazio Batuen barruan 2015-2030 aldirako Garapen Iraunkorreko Helburuak (GJH) bultzatzea erabaki zen. Milurteko helburuekin ekintza “unibertsalerako deia egitea izan zen helburua, larriztat edota erradikaltzat jotzen diren eguneroko bizitzako arazoei aurre egiteko”. Orain, GJHen formulazioa “gizateriaren lehen ahalegin handia da mundu osoko milioika pertsonen bizi-maila aldi berean igotzeko”. Mobilizazio globala sustatzen duen erronkaren aurrean, liburutegi publikoek ezin dute beste alde batera begiratu, eta ez dute nahi.

Irakurketa sustatzeko funtsezko eginkizunarekin lotuta, eta aisialdiarekin, entretenimendu-kulturarekin eta artie munduarekin lotutako espazio okupatuaz harago, gure liburu-erakundeek gizarte-hobekuntzaren eta aurrerapenarekiko konpromisoaren aldeko lan-rol saihestezina bete





«Si hortum in bibliotheca habes, nihil deerit».
(Liburutegitik gertu lorategi bat baduzue, ez zaizue ezer faltako).
Marco Tulio Cicerón



izan dute tradizioz, eta hori sustatzen jarraitu behar da inolako aitzakia-rik gabe. Gure etxearen zaintza, planeta bere biodibertsitatearekin eta bertan bizi den giza komunitatearekin, inoiz amaitu gabeko lan iraunko-rra da. Ekintzarako deiaren testuinguru global horretan, hainbat liburu-tegi-eremutako ekimen interesgarriak sartzen dira, GJHak betetzeko ahaleginak egiten ari direnak. Lorategia, filosofoaren metaforan, zaindu eta landu egin behar da. Eta lorategi handi eta berezi honetako parterre batean txabola bat dago, lanabesak eta liburu itxurako jakintza-bilduma gero eta handiagoa dituen. Hori guztia lorezaintza-lanak ezagutzen eta egiten dituztenen zaintzapean.

Planetak eta giza generoak aurre egin beharreko erronkak, Nazio Batuek ezarritako 17 helburuetan adieraziak, hain dira handiak, non proposa-men temati eta berritzaileak behar ditugun, pertsona arriskutsu eta sor-tzaileenak, hala nola Liz Christy. Emakume horrek hirigintza beheratua-ren presio izugarriari aurre egiten jakin zuen, higiezinaren interes gero eta handiagoen pean New Yorkeko biztanleek paseorako, naturaren goza-menerako, elkarrizketarako eta bakerako espazioak galtzen baitzituzten. Bertan behera utzitako orubeak jendearentzat berreskura zitezkeela susmatu zuen, eta naturak hiriaren lodiera grisari aurre egiten lagun


zezakeela. Seed bombs asmatu eta milaka jaurti zituen 1973tik aurrera hiriko bazter eta parke hondatuetan. Hiri handiaren kutsadurarekin eta gizatasunik ezarekin gogaituta zeuden herrikideak mugiarazi zituen hiriko lorezain horrek, eta gaur egun mundu osoan ezagutzen eta era-biltzen diren bere hazi-ponpekin, hiriaren bizigarritasuna berdintzea eta hobetzea lortu zuen, eta arreta-dei bat egin zuen hazkunde neurrigabe, ez-iraunkor, interes ekonomiko aseezinen menpe eta interes orokorretik urrun zegoen hazkundeari buruz.

Euskal Herriko liburutegi publikoetan, gaur egun, emakume lorezain honek bezala, berrikuntzak egin eta errealitate desafiataileak bizitza-rako leku hobeetan eraldatuko dituzten pertsonak behar ditugu.

Garaia hartan, Christy andreak denbora bat zeramanean bereak egiten orubeak baso bihurtuz, 1976an inauguratu zen Ignacio Aldecoa Kultur Etxea, bere arteria nagusia liburutegi publikoa da. Lorategi erromantiko horietako batean dago, aniztasun botanikoaren bidez berdeguneen espazioa biderkatu nahi zuten, herritarrek erabiltzeko eta gozatzeko. Gasteizko Florida parkea Espainiako lehen parke publikoetako bat izan zen, 1820an sortua. Parkea sortu eta berrehun urtera eta hazi-bonbak asmatu eta berrogeita hamar urtera, liburutegi honetan lan egiten

dugun pertsona-taldea egunero saiatzen gara hezkuntzaren, zientziaren eta kulturaren hedapenaren aldeko konpromisoa berritzen. Une hone-tan, Garapen Jasangarriaren Helburuak gure atea jotzen dute, eta ez dakigu eta ez dugu beste alde batera begiratu nahi. Bertan bizi garen lorategi honetan dugun lekutik gure hazia botatzen saiatuko gara.

Enrique Uriarte Gonzalo-Bilbao
Ignacio Aldecoa Kultura Etxearen zuzendaria



Iruña Okako udal Liburutegia: aireratu ez den liburutegia

Ikus-entzuna Liburutegi publikoa pertsonen-gandik gertu dago eta gaur egun jarduera anitzez goza daitekeen erreferentea da.

Liburutegi publikoa pertsona guztien ezagutzarako eta informaziorako sarbidea bermatzen duen informazio-unitateetako bat da; komunitate, auzo, hiri edo herri baten zerbitzura dago. Pertsonengandik gertu dago eta, gaur egun, hainbat jardueraz gozatzeko aukera ematen duen erreferentea da. Liburutegietan inori ez zaio galdetzen zer nahi duen edo nora doan. Askea izateko aukera dago, hitzaren zentzurik zabalenean; edonor ibil daiteke bere apalen artean, erakusketetan, proposamenak egin eta abar.

Liburutegi publikoa ideien iturria da, eta inor ez da diskriminatzen arrazagatik, sexuagatik, adinagatik, erlijioagatik, egoera ekonomikoagatik edo kultura-mailagatik. Liburutegia XIX. mendekoa izateari utzi dio eta XXI. mendean integratu da. Egokitzapenean, erabiltzaileak eta profesionalak eskutik doaz; erabiltzaileen lehentasunak izango dira profesionalen helburu nagusia kalitatezko zerbitzuak eskaintzeko orduan.

Kokapena


Iruña Oka Arabako udalerrri bat da, eta gaur egun 3.514 biztale ditu. Udalerrriak 5 herri ditu (Mandaita, Olabarri, Langraiz Oka, Biloda eta Tresponde) eta bere liburutegia Langraiz Okan dago. Liburutegia zentro soziokultural baten eraikinean integratuta dago bertan herritarrei beste zerbitzu batzuk ematen zaizkielarik. Hona hemen horietako batzuk: kultura-taldeak, eskulanen tailerrak, helduentzako eskolak, oinarrizko gizarte-zerbitzua eta animazio soziokulturaleko zerbitzua, besteak beste.

Eraikina leku pribilegiatu batean dago: herriaren erdigunean. Arkitektura-oztoporik gabeko sarbideak ditu, eta oinezkoentzako gune zabal batez inguratuta dago. Eragozpen bat: liburutegia txiki geratu da. Ozta-ozta 90 m². 1988az geroztik, ez da ezer aldatu. Gaur egun, agerikoa da liburutegi publikoak ezartzen dituen helburuak betetzeko espaziorik ez duela. Azken urteotan, hainbat ahalegin egin dira liburutegiari kokapen berri bat bilatzeko, eta guztiak alferrikakoak izan dira. Proposamena (2013) honako hau zen: eraikinari buruzko jarraibideak (helduentzako/haurrentzako kontsulta-gelak, hemeroteka, zirkulaziorako espazio komunak, ikasketa-gela, erabilera anitzeko gela eta liburutegiko gordailua); ekipamenduari buruzko jarraibideak (apalategiak, irakurketa-postua, erabilera publikoko ordenagailuak, Internetarako konexioak) eta funtsari buruzko jarraibideak (zabala eta plurala, monografiak, ikus-en-tzunezko dokumentuak eta soinu-grabazioak, aldizkako argitalpenak).

Pertsona askorentzat begi-bistakoa dirudien arren, liburutegian sartzea eta ematen dituen zerbitzuak erabiltzea guztiz doakoa da. Iruña Okako udalerrrian dagoen liburutegi hau Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen parte da. Sarea Euskadiko udal-liburutegi guztiek osatzen dute, baita hitzarmen baten bidez sarean sartu diren erabilera publiko orokorreko liburutegiek ere.



Nobedadeak



Zein zerbitzu eskaintzen dizkit Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareak?

Aukera anitzeko katalogoa da, sarean parte hartzen duten Euskadiko udal-liburutegi guztietan eskuragarri dagoen informazioa biltzen duena. Lineako katalogo honek (OPAC: online Public Access Catalog edo, bestela esanda, Sarbide Publikoko Lineako Katalogo automatizatu) parte hartzen duten liburutegi guztietako funtsen kontsulta elebiduna ahalbidetzen du, eta materialak aurkitzea eta eskuratzea errazten du, liburuak, filmak, musika, eta abar. Dokumentuak zein liburutegitan dauden ez ezik, mailegagarriak diren, mailegatuta dauden eta noiz itzuli behar diren ere jakin ahal izango duzu. Beste abantaila bat ere badu: Internetera konektatutako edozein ordenagailu edo gailutatik kontsulta daiteke.

Hauak, eta askoz abantaila gehiago, Sarekoak diren Euskadiko edozein liburutegi publikotako txartela dute:

- Erosketa berrien iradokizunak edo eskaerak egitea (desideratak)
- Kontsultatu zure fitxa pertsonala
- Eduki digitalen mailegurako sarbidea eLiburutegiaren bidez
- Maileguak berritzea eta dokumentuak erreserbatzea
- Zinema online ikusi
- Liburuklik (Ondare Bibliografiko Digitalizatua)
- Bilgunea (Euskal liburutegien katalogo kolektiboa)
- Liburutegi Zerbitzuaren web orria

Hemeroteka

Tokiko funtseko egunkarietako artikulua batzuek ditugu, 1981. urtetik kontsulta daitezkeenak. Informazioa berreskuratzeko aplikazio egoki batekin digitalizatzea da asmoa. Halaber, kontsultarako interesgarriak izan daitezkeen albiste orokorren bilduma ere badugu (hemeroteka orokorra).

Gaur egun, honako aldizkari hauetara harpidetuta dago liburutegia:

Haur/ Gazteak

- Maskorra
- Doc erreportaria
- Gaztezulo

Heldunak

- National Geographic-en bidaiak
- National Geographic-en historia
- Speak Up (English magazine)
- Nire liburutegia
- Argia
- Datu ekonomikoa
- Eta aldian behingo beste aldizkari edo aldizkari instituzional batzuk (tokikoak, autonomikoak eta nazionalak)



Infoteka

Txema González

Iruña Okako Udal Liburutegiko liburuzaina

Ikanos eredua: Euskadiko Irakurketa Publikoko sareko liburutegien kolektiboarentzako gaitasun digitalen diseinuari aplikatutako

Eusko Jaurlaritzak, 2015eko Agenda Digitalaren esparruan, Ikanos izeneko ekimen propioa jarri zuen abian, elkarlanean aritzeko, partekatzeko eta gaitasun digitalak zer diren eta nola eskuratu daitezkeen zabaltzeko. Ekimenak gaitasun digitalen Europako esparrua Euskadin bultzatzea eta hedatzea du helburu, eta erakundeei eta profesionalei beren profil profesional digitala egiten laguntzen dieten urrats, ekintza eta tresna batzuk eskaintzen ditu.

Gure kolektiboak bere profil digitala izateko beharra antzeman ondoren, lantalde bat osatu zen Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko (EIPS) liburutegietako profesionalekin. Lantalde hori, Ikanos ekimenaren arduradunekin batera eta haren jarduera-ereduari jarraiki, lanean hasi zen gure profil profesional digitala diseinatzeko, sareko liburutegi publikoetatik eraldaketa digitalari arrakastaz ekiteko.

Gauza jakina da XXI. mendean, liburutegietako langileek, bai aurrez aurre, bai birtualki, Internet bidez, teknologiarekin elkarreragin behar dutela, informazio- eta erreferentzia-zerbitzuak eskaintzeko, edukiak sortzeko eta zabaltzeko edo beren publikoekin komunikatzeko. Eta, prozesu horiek guztiek lotura estua dute DigComp Lehia Digitalaren Europako Esparruan ezarritako gaitasun digitalekin.

Cristina Colomek arrakala digital mota desberdinak deskribatzen dituen bere artikuluan azaltzen duen bezala, arraila gaitasun digitalengatik ere gertatzen da; izan ere, 2020an DESIk (Digital Economy and Society Index) emandako datuen arabera, Espainiako biztanleen ia erdiei oinarrizko trebetasun digitalak falta zaizkie, eta % 8 ez da Internetera sartu. (Las brechas digitales que deben preocuparnos y ocuparnos. Economía: Revista vasca de economía, ISSN 0213-3865, 2020, nº. 98, 350-353).

Horregatik, Kultura Ondarearen Zuzendaritzari atxikitako Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzua Ikanos programaren arduradunekin harremanetan jarri zen, Sarearen profil digital profesionala diseinatzeko.

elkarrekin lan egitea ahalbidetuko ziguten lankidetzak aukerak aztertu eta zehazteko.

Egindako proiektuaren faseak:


- *Proiektuaren diseinua eta irismena (2020ko urtariletik 2020ko ekainera).*

Fase honetan lankidetzaren egingarritasuna, jardueraren irismena eta abordatze-prozesua aztertzen dira.

Taldeko kide bakoitzak proiektu berri horren aurrean egindako iradokizunak eta itxaropenak elkarrekin partekatu ondoren, proiektuaren xedea eta irismena zehazten aurreratu zen, eta galdera honi erantzun zitzaien: *zertarako egin sareko liburuzainaren profil digitala?*

- *EIPSk liburuzainaren Profil Digital Profesionala diseinatzeko (2020ko urria-azaroa).*

Ikanos metodologiari jarraiki eta DigComp esparruko bost arloak kontuan hartuta, bost talde sortu ziren, horietako bakoitzak udal liburuzainaren jarduera digitalen deskribapena egin zezan, arlo hauei dagokienez: informazioa, komunikazioa, edukien sorrera, segurtasuna eta arazoak konponketa. Ikanos ereduko aditu baten laguntzari esker, hobeto ulertu genuen gure funtzioen eta DigComp Gaitasun Digitalen Europako Esparruak proposatzen dituen arlo, gaitasun eta mailen arteko korrelazioa.



Lanbidearen profil digitala egiteko, alderdi hauei buruzko hausnarketa egin behar genuen:

- Gure lanbidearen eskakizun digitalak
 - Zereginak euskarri digitalarekin egiteko trebetasun digitalen maila
- Gure lana, esleitu ziguten eskumen-arloaren barruan, izan zen egiten ditugun jarduera digitalak eta gure lanean aplikatzen ditugun soluzio teknologikoak definitzea. Era berean, zeregin bakoitzaren alderdi digitalak identifikatzea eskatu zitzaigun. Prozesu horiek definitu ondoren, hurrengo urratsa jarduera digitalak DigComp-ari zegokion gaitasun-mailarekin lotzea izan zen.

- *Gaitasun digitalak autoebaluatzeko galdetegia diseinatzea (2020ko abendua - 2021eko urtarrila).*
- *Galdeketaaren aplikazioa eta emaitzak lortzeko txostena (2021eko otsaila-uztaila).*

Denbora-eremua: deskribatutako lanak amaitu ondoren, bi fasetan aplikatu zitzaion galdetegia kolektiboari. Lehenengo etapan, profil digital

profesionala zehazteko kolaboratzaileen jatorrizko liburutegietako profesionaleri aplikatu zitzaien (Eibar, Getxo, Leioa eta Errenteria), 2021eko otsaileko azken astean. Bigarren etapan, 2021eko maiatzean, EIPSKo gainerako liburutegietako profesionaleri ireki zitzaien.

Laginaren tamaina: deitutako profesionalen populazioa 305 da. Euskadiko udal liburutegietako 175 profesionalak erantzun dute galdetegia.

Erantzun-tasa: lortutako erantzun-tasa % 57,4koa da.

Ebaluazio-testa egin eta emaitzen txostena lortu ondoren, une honetan zeregin hauetan ari gara:

- Kolektibo profesionalaren gabeziak edo ahulguneak agerian uzten
 - Prestakuntza-plana egiten: edukiak eta kronograma
 - Bait ziurtagiria (profila egiaztatzea) ezartzeko aukera aztertzen
- Gaitasun digitaletan trebatzea ez da soilik zerbitzu digitalek gure liburutegietan izan duten gorakadak ezarritako eskakizuna; izan ere, gure kolektiboarentzat oinarritzkoa da arlo batzuetako trebetasun digitalak menderatzea, hala nola informazioa bilatu eta edukiak sortzeko trebe-



tasunak, ematen ditugun zerbitzuak aurrez aurrekoak edo birtualak izan. Azken batean, informazioa bilatzea eta antolatzea, kudeaketako oinarrizko tresnak menderatzea edo edukiak sortzea, hala nola gidak, kartelak edo dokumentuak, gaitasun digitalen oinarrizko ezagutza edo ezagutza aurreratua eskatzen duten oinarrizko zereginak dira.

Francisca Pulgar Vernalte

Liburutegi zerbitzua

Eva Alberdi Zubiaurre

Eibarko “Juan San Martín” Liburutegi Zerbitzua y ALDEEko presidenteordea



Sarea zifratu

Atal honetan ekitaldi bakoitzeko daturik esanguratsuenak biltzen ditugu, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen errendimendu-adierazleak erakusteko, kasu honetan, 2021ekoak.

2020ko ekitaldiko datuek, COVID19aren pandemiaren ondorioz denok dakigunez, alde nabarmenak izan zituzten aurreko urteekin alderatuta.

Esan dezakegu 2021a normaltasunerako trantsizio-urtea izan dela, baina pandemiaren ondorioak nabaritzen jarraitu dira pandemiaren olatuei aurre egiteko ezarritako protokoloen eta edukiera-mugaketen ondorioz, eta horrek eragina izan du kultura sektorean eta, beraz, liburutegi zerbitzuetarako sarbidean

Maileguei dagokienez, 2021ean 2.519.662 mailegu egin ziren; 2020an, berriz, 1.746.814, datuak hobetu arren ez gara heldu 2019ko zifrataraz (2.744.226 izan ziren).

27.550 pertsona egin ziren liburutegietako bazkide, hau da, aurreko urtean baino % 36 gehiago (20.958).





Bestalde, liburutegien arteko maileguari dagokionez (LAM), urtez urte gora egiten ari dena, 2021ean 280.714 eskaera egin dira, aurreko urteko 205.313 eskaeren aurrean, eta horrek erakusten du zerbitzu hori sareko erabiltzaileek gehien estimatzen dutenetako bat dela.

Sareko liburutegien funts bibliografikoa 84.200 titulu berriekin aberastu da (liburutegiek erositako titulu berriak eta Arantzazuko Santutegiko liburutegiak sartutakoak barne), eta 310.304 ale gehitu dira katalogora.


Horren ondorioz, sarearen katalogoak 1.440.296 titulu eskaintzen ditu, hau da, 2020an baino % 12 gehiago (1.368.826 ale).

Katalogatu beharrik gabe alta ematen zaien aleen kopuruan eta liburutegien arteko mailegu-zerbitzuan adierazten da sarearen iraunkortasuna.

Eta azkenik, OPACen bilaketak 2020an 2.519.662 kontsulta izatetik 2021ean 3.438.108 izatera igaro dira, hau da, % 32ko igoera izan da.



Mailegatuena...



- 1- Aquitania
- 2- Rey Blanco
- 3- La hora de las gaviotas

2.296
2.245
2.098


- 1- Patria
- 2- La trinchera infinita
- 3- Sentimental

674
284
254


- 1- The platinum collection
- 2- Limones en invierno (Izaro)
- 3- Cada vez cadáver

71
67
41


...Irakurrienak



...Ikus-entzunezko



...Soinudunak



- 1- Naruto uzumaki
- 2- Dragonball
- 3- Juega y aprende con Mickey

4.212
1.904
931


- 1- Érase una vez el cuerpo humano
- 2- Del revés
- 3- Los futbolísimos

392
116
111

- 1- Frozen: las canciones
- 2- Audio cuentos
- 3- ¡¡Ole sardina!!

9
7
7

Mailegatuneak... euskaraz



- 1- Miñan
- 2- Aitaren etxea
- 3- Dendaostekoak

984
870
724


- 1- Ane
- 2- Agur Etxebeste!
- 3- Izarren argia

112
88
26


- 1- Aho uhal (Olatz Salvador)
- 2- Ni naiz: antologia (Xabier Lete)
- 3- Musikak salbatuko gaitu (Gatibu)

59
53
45

...Irakurrienak



...Ikus-entzunezko



...Soinudunak



- 1- Onin eta altxorraren uhartea
- 2- Onin eta basoko misterioa
- 3- Onin eta Afrikarako bidaia

758
736
717

- 1- Triki, traka, tron
- 2- Bizipoza
- 3- Sentitu, pentsatu, ekin!

317
177
161

- 1- Bizi dantza
- 2- Go!azen
- 3- Musua

57
53
52

Bi hitzetan



Bilgunea

Liburutegiei buruzko Legearen 9. artikulua, informazio bibliografikoa eskuratzeari dagokionez, adierazten du "Eusko Jaurlaritzan kulturaren alorreko eskumenak dituen sailak bibliografia-informaziorako irispidea bermatuko die Euskadiko Liburutegi Sistemako liburutegiei, katalogo kolektibo bat sortuz".

2004an Bilgunea jarri zen abian, euskal liburutegien katalogo kolektiboa.


Aurten, Bizkaiko Foru Aldundiak lankidetzaz hitzarmen bat sinatu du Bilgunean, euskal liburutegien katalogo kolektiboan, parte hartzeko. Beraz, Bilgunea katalogoaren hurrengo eguneratzea egiten denean, Bizkaiko Foru Liburutegiaren erregistro bibliografikoak agertuko dira.

Era berean, katalogo bibliografiko honetako informaziorako sarbidea aberastuko duten funtzionalitate berri batzuk aztertzen ari gara, bai liburutegietako langileentzat bai herritarrentzat oso erabilgarriak izango direnak informazioa aurkitzeko eta euskal liburutegietan aurkitzeko orduan.

eLiburutegia berritu egin da

Aurten eLiburutegiaren bertsio berria instalatuko da. Beste berritasun batzuen artean, deskargatu aurretik liburuen % 10 irakurtzeko aukera emango du, baita nobedadeen arabera bilatzeko eta liburutegi bakoitzak bere estatistikak atera ahal izateko aukera ere.

Horretaz aparte, arazoak sortu dituzten funtzionalitate batzuk konpontzea espero dugu, hala nola, abisuak, erreserben jakinarazpenak, desideratak bidaltzea, etab.



Liburutegiak



© 2022

Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzuak
argitaratua.

Posta elektronikoa
liburutegi-zerbitzua@euskadi.eus

LG: SS 1509-2005

2021



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO